

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Diputatu Nagusiaren Kabinete eta Komunikazio Zuzendaritzaren 3483/2020 Ebazpena, abenduaren 15koa, agintzen duena Arabako Foru Aldundiko sailek hainbat erakunde eta elkarterekin izenpetutako lankidetzaren hitzarmenaren laburpenak argitaratzeko

Arabako Foru Aldundiko zenbait sailek Diputatu Nagusiaren Sailaren Idazkaritza Teknikoko eta Herritarrak Atenditzeko Zerbitzuari zenbait lankidetzaren hitzarmenaren kopia helarazi dizkiote, behar bezala sinatuta.

Kontuan hartu dira horretarako zer xedatzen duten Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47. artikulua eta ondorengoak; Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoaren abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 79. artikuluan, eta Diputatuen Kontseiluaren maiatzaren 11ko 129/1993, urriaren 29ko 95/1996 eta maiatzaren 27ko 53/1997 foru dekretuek.

Ikusita lehen aipatutako lege aginduak eta aplikatu beharreko gainerakoak, eta Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoaren abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 102. artikuluan eta Diputatuen Kontseiluaren urriaren 29ko 95/1996 Foru Dekretuaren hirugarren apartatuaren arabera dagozkidan eskumenak erabiliz, honako hau

EBAZTEN DUT

Agintzea ondorengo lankidetzaren hitzarmenak ALHAOn argitara daitezela:

IZENPETZE EGUNA: 2020ko irailaren 30a

Izenpetu duten organoak:

Batetik: Cristina González Calvar, Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua.

Bestetik: María de Simón Baranda, ARABAKO ERRIOXAKO ARDOAREN IBILBIDEA – Arabako Turismoa eta Ekonomia sustatzeko Elkartearen lehendakaria.

Hitzarmenaren helburua: Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailaren eta ARABAKO ERRIOXAKO ARDOAREN IBILBIDEA – Arabako Turismoa eta Ekonomia sustatzeko Elkartearen arteko harremanak formalizatzea, modu osagarrian egin ditzaten beren helburuak betetzeko dagozkien ekintzak.

Aldeen ekarpenak eta konpromisoak: Arabako Foru Aldundiak 100.000 euroko dirulaguntza emango dio ARABAKO ERRIOXAKO ARDOAREN IBILBIDEA – Arabako Turismoa eta Ekonomia sustatzeko Elkarteari, Arabako Foru Aldundiak 2020ko ekitaldirako duen gastu aurrekontuaren kontura.

Indarraldia: sinatu eta hurrengo egunetik aurrera eta sinatzen den urteak dirauen bitartean.

Luzapena: ez da aurreikusten.

IZENPETZE EGUNA: 2020ko urriaren 22a

Izenpetu duten organoak:

Batetik: Emilio Sola Ballojera, Gizarte Politiken Saileko foru diputatua eta Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluko lehendakaria.

Bestetik: Francisco José del Campo San Vicente, Asociación Música, Arte y Proceso elkarteko lehendakaria.

Hitzarmenaren helburua: Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen mendeko zentroetan boluntarioen programa garatzea.

Finantzaketa: 0 euro.

Indarraldia: 2024ko urriaren 21a.

IZENPETZE EGUNA: 2020ko urriaren 26a

Izenpetu duten organoak:

Batetik: Cristina González Calvar, Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua.

Bestetik: Gregorio Rojo García, Arabako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialeko lehendakaria.

Hitzarmenaren helburua: Arabako Foru Aldundiaren (Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saila) eta Arabako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialaren lankidetzara arautuko duten baldintzak ezartzea, erakunde bakoitzari modu osagarrian dagozkion eta erakunde bakoitzaren xedeak erdiestera bideratuta dauden jarduerak optimizatzeko (Errelebo programa zerbitzu sektorean).

Aldeen ekarpenak eta konpromisoak: Arabako Foru Aldundiaren aldetik, Arabako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialari 17.000 euroko dirulaguntza ematea, Arabako Foru Aldundiaren 2020rako ekitaldirako gastuen aurrekontuaren kontura.

Epea: sinatu eta hurrengo egunetik aurrera eta sinatzen den urteak dirauen bitartean.

Luzapena: ez da aurreikusten.

IZENPETZE EGUNA: 2020ko urriaren 29a

Izenpetu duten organoak:

Batetik: Emilio Sola Ballojera, Gizarte Politiken Saileko foru diputatua eta Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluko lehendakaria.

Bestetik: Natalia Rojo Solana, Autismo Araba Tearaba Elkarteko ahalduna.

Hitzarmenaren helburua: autismoaren espektroko nahasmenduak dituzten Arabako helduentzako eguneko zentroa kudeatzea.

Finantzaketa: 585.309,68 euro.

Indarraldia: 2020ko abenduaren 31.

IZENPETZE EGUNA: 2020ko urriaren 29a

Izenpetu duten organoak:

Alde batetik: Emilio Sola Ballojera, Gizarte Politiken Saileko foru diputatua eta Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluko lehendakaria.

Bestetik: Miguel García Quintana, minbizia duten haurren gurasoen Arabako elkarteko lehendakaria.

Hitzarmenaren xedea: Minbizia duten Arabako umeen familiekin (ASPANAFOA) esku hartze psikosozialeko programa abiaraztea eta garatzea.

Finantzaketa: 33.250,00 euro.

Indarraldia: 2020ko abenduaren 31.

IZENPETZE EGUNA: 2020ko urriaren 29a

Izenpetu duten organoak:

Alde batetik: Emilio Sola Ballojera, Gizarte Politiken Saileko foru diputatua eta Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluko lehendakaria.

Bestetik: Idoia Axpe Ormaechea, errehabilitatzen ari diren jokalarien Arabako elkarteko (ASAJER) lehendakaria.

Hitzarmenaren xedea: Ludopatiei aurrea hartzeko, ludopatak bideratzeko eta ludopatei informazioa emateko programak eta zerbitzuak garatzea.

Finantzaketa: 48.000,00 euro.

Indarraldia: 2020ko abenduaren 31.

IZENPETZE EGUNA: 2020ko azaroaren 5a

Izenpetu duten organoak:

Alde batetik: Emilio Sola Ballojera, Gizarte Politiken Saileko foru diputatua eta Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluko lehendakaria.

Bestetik: Bartolomé Jiménez Gracia, Gao Lacho Drom Elkarteko lehendakaria.

Hitzarmenaren xedea: Droga mendekotasuna prebenitzeko eta ijito toxikomanoak eta toxikomano ohiak birgaitzeko eta birgizarteratzeko programa bat garatzea.

Finantzaketa: 65.027,40 euro.

Indarraldia: 2020ko abenduaren 31.

IZENPETZE EGUNA: 2020ko azaroaren 5a

Izenpetu duten organoak:

Alde batetik: Emilio Sola Ballojera, Gizarte Politiken Saileko foru diputatua eta Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluko lehendakaria.

Bestetik: Bartolomé Jiménez Gracia, Gao Lacho Drom Elkarteko lehendakaria.

Hitzarmenaren xedea: Ijitoak Arabako Lurralde Historikoan gizarteratzeko aurreprestakuntzarako zerbitzu bat garatzea.

Finantzaketa: 146.674,43 euro.

Indarraldia: 2020ko abenduaren 31.

IZENPETZE EGUNA: 2020ko azaroaren 5a

Izenpetu duten organoak:

Alde batetik: Emilio Sola Ballojera, Gizarte Politiken Saileko foru diputatua eta Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluko lehendakaria.

Bestetik: Bartolomé Jiménez Gracia, Gao Lacho Drom Elkarteko lehendakaria.

Hitzarmenaren xedea: 6 eta 16 urte bitarteko adingabeentzako eguneko zentroa eta esku-hartze familiarreko programa espezializatua garatzea.

Finantzaketa: 179.379,20 euro.

Indarraldia: 2020ko abenduaren 31.

IZENPETZE EGUNA: 2020ko azaroaren 23a

Izenpetu duten organoak:

Alde batetik: Ana M. Del Val Sancho, Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Saileko diputatua.

Bestetik: Gregorio Rojo García, Arabako Merkataritza, Industria eta Zerbitzuen Ganberako lehendakaria.

Hitzarmenaren xedea: Kultura bonuen programaren deialdia egitea, diruz laguntzeko enpresari autonomoen establezimenduetako, mikroenpresetako eta enpresa txikietako kultura zerbitzu, produktu eta ondasunen erosketak, beherapen bonuak eginez, onuradunek ondasun horiek eskuratzeko prezioan beherapena izan dezaten.

Indarraldia: Azaroaren 23tik 2021eko maiatzaren 31ra arte.

Luzapena: ez da aurreikusten.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko abenduaren 15a

Kabinete eta Komunikazio zuzendaria
ELENA FERREIRA SEBASTIÁN